

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2019ko IRAILAREN 26an EGIN ZUEN BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz), 2019ko irailaren 26ko 10:30ean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauek bertaratu direlarik:

- **Presidentea:** Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziaren eta bere Kontseilu Errektorearen presidentea, Lehendakariak eskuordetuta (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- **Bokala:** Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren izenean.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren izenean.
- **Bokala:** Isabel Carmen Octavio Uranga andrea, sailburuaren kabinetearen zuzendaria, Osasun Sailaren izenean.
- **Bokala:** Jordi Campás jauna, Ekonomiako zuzendaria, Ogasun eta Ekonomia Sailaren izenean, Alberto Alberdi Larizgoitia jauna ordeztuz.
- **Bokala:** Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

- **Bokala:** Eva Juez andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen presidentea, Eusko Jaurlaritzaren izenean.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren izenean.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Blanca Pérez Jiménez andrea –GLEAren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna– eta Ainara Arrieta Archilla andrea –GLEAren Koordinazio Teknikoaren arduraduna– bertaratu dira.

Sarrera

GLEAren eta bere Kontseilu Errektorearen presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko.

Kontseilu Errektoreko izendapen berriak adierazi ditu: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Oroz Izagirre jauna izendatu du sailaren ordezkari gisa jarduteko, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendari Jone Miren Fernández Landa andrea, ordezkari gisa. Era berean, Osasun Sailak Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuorde Fátima Ansotegi Elordi andrea izendatu du ordezkari gisa, eta Sailburuaren Kabineteko zuzendari Isabel Carmen Octavio Uranga andrea ordezkari gisa.

Hainbat kidek Kontseilu Errektorean lehen aldiz parte hartzen dutenez, bertaratuen banan banako aurkezpena egin da, eta ondoren bilkurari hasiera eman zaio, honako gai-zerrenda honekin:

1. Uztailaren 9an egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2020rako aurrekontuaren aurreproiektu-proposamena onartzea
3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea
4. Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei 2018ko laguntzen (NBE bekak) luzamendua emateko proposamenari buruzko informazioa
5. GLEAren 2019rako aurrekontuaren aldaketa bat onartzea
6. 2019ko soldata-igoera onartzea
7. Galde-eskeak

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2019ko uztailaren 9ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

2. 2020rako aurrekontuaren aurreproiektu-proposamena onartzea

Araudiak formalki adierazten du Kontseilu Errektorearen funtzioetako bat "*Agentziaren urteko aurrekontuaren aurreproiektua egitea*" dela. Beraz, aurreko aldietan bezala eta Agentziaren Aholkularitza Juridikoaren eta Jaurlaritzaren beraren iritziarekin bat eginik, Kontseilu Errektoreari dagokio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2020ko Aurrekontuaren Aurreproiektua onartzea, garatzeko eta Jaurlaritzaren Kontseilura bidaltzeko.

Proposamena, zeinaren dokumentazioa Kontseiluko kideei aldezturik bidali zitzaizen, 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planak aldi horretarako aurrekontu-esparruan egiten duen aurreikuspenarekin bat dator.

Presidenteak eskatuta, bozketa egin da. Aldeko 6 botorekin –Jonan Fernández, Jordi Campás, Monika Hernando, Jone Fernández, Isabel Octavio eta Paul Ortega– eta 3 abstentziorekin –Sofía Marroquin, Patricia Bárcena eta Josu Urrutia–, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2020ko Aurrekontuen Aurreproiektua onartu da.

Sofía Marroquinek adierazi du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 3 ordezkarien abstentzioaren arrazoia dela Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legean ezarritako helburua ez dela betetzen.

3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Proposatzen da zuzenean emateko 5 proposamen onartzea, 900.000 euro inguruko balioarekin. Proposatutako laguntza bakoitzaren dokumentazioa Kontseiluko kideei alde zuzenean bidali zaie.

Ekimen horiekin, indartu egingo dira GGKEen proiektuen formulazio eta jarraipenerako gaitasunak Senegalen, giza eskubideak defendatzen dituzten elkarten (zehazki COFADEH) gaitasun instituzionalak Hondurasen, eta Bake Akordioen barruko adiskidetze-ekimenak Kolonbian. Gainera, Afrikako errealitatea Euskadiko bigarren hezkuntzako ikasleengana hurbiltzeko material didaktikoak sortzeari laguntza emango zaio, eta azkenik, gosea gerra-arma gisa erabiltzearen aurkako metodologia bat eta kanpaina bat lantzeko laguntza emango da, Nazio Batuen esparruan aplikatu ahal izateko.

Jonan Fernandezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola dagokion izapidetzeari hasiera eman ahal izateko zuzeneko emakidarako proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

4. Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei 2018ko laguntzen (NBE beka) luzamendua emateari buruzko informazioa

2018az geroztik hainbat herrialdetan Nazio Batuen erakundetan beka garatzen ari diren 11 lagunaren egonaldia luzamendua eman zaiola adierazi da. Eskaera egin duten pertsona guztiek euren egonaldia luzatu ahal izan dute.

5. Aurrekontu-aldaketa, Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian Erreforma eta Egokitzapen Obrak egiteko. GLEaren egoitza berria

Adierazi da beharrezkoa dela Agentziaren kapital-aurrekontuaren aldaketa bat onartzea, Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian kokatuta dagoen eta agentziaren egoitza berria izango den eraikina egokitu eta eraberritzeko obretatik eratorritako gastuei aurre egiteko.

Proposatu den aurrekontu-aldaketa bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

6. **GLEAko langile guztien soldatak eta ordainsariak uztailaren 1etik aurrera % 0,25 igotzea.**

Adierazi denez, eta irailaren 10eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren arabera, Agentziako langileen soldata eta ordainsarien % 0,25eko igoera onartzea; igoerak 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango du atzeraeragina.

Proposatu den aurrekontu-aldaketa bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

7. **Galde-eskeak**

Adierazi da Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkura urriaren 22an egingo dela, goizeko 10:30ean; eta, besteak beste, zuzeneko dirulaguntza batzuk onartzea proposatuko da eta deialdietan emandako laguntzen berri emango da.

Era berean adierazi da migrazioaren aldeko itun sozialaren aurkezpenaren data aldatu dela, eta azaroaren 30ean egingo dela.

Adierazi da Garapenerako Lankidetzarako teknikarien lan-poltsa zabaltzeko prozesua izapidetzen ari dela, Agentzian egon daitezkeen lanpostu hutsak eta ordezenak estaltzeko.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat eman da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE. Jonan Fernández Erdozia jauna,
Agentziaren eta bere Kontseilu
Errektorearen presidentea,
Lehendakariak eskuordetuta (11/2017
Dekretua, apirilaren 25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektorearen idazkaria
GLEAren zuzendaria